AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3200

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 10ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko emaitza horiek behin betiko bihurtzen dituena.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2012ko otsailaren 3ko Ebazpenaz (EHAA, 2012-02-24; 40. zk.), hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Deialdi honetako ohiko azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2012ko ekainaren 15eko Ebazpenaz argitaratu zen (EHAA, 2012-06-15; 118. zk.).

Zerrenda honen kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutakoak aztertu dira. Gauzak horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra jarri eta onartu diren azterketarien erreklamazioen emaitzen argitalpena agintzea www.ivp.euskadi.net/r61-euskera/es helbide elektronikoan.

2.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako beste erreklamazio guztiak gaitzestea.

3.– 2012ko otsailaren 3ko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzea.

4.– Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra, gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango da Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren aurrean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 10a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.